

Begarako Udalaren eta Jardun euskara elkartearen arteko hitzarmena, *BERRIKETAN* programa diruz laguntzekoa

Begarán, bi mila eta hogeita lauko azaroaren bian

BILDU DIRA

Ainhoa Lete Zabaleta, Begarako Udaleko behin behineko alkatea, Begarako Udalaren ordezkaritzan.

Eta bestetik, Miren Etxeberria Jauregi andrea, Jardun kultur elkarteko lehendakaria, elkarte horren izenean. Azken honek behin behineko alkate andrearen aurrean zinpean aitortu du bera eta berak ordezkatzen duen elkarteak ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote ordezkatzen duten entitatea ordezkatzeko eta behartzeko gaitasuna eta, hala, honakoa

ADIERAZI DUTE

- 1.- Jardunek Begarako Udal Euskaltegiarekin lankidetzan eta Begarako Udalak diruz lagunduta, euskaldunberriei euskaraz egiteko guneak eskaintzeko, *BERRIKETAN* izeneko programa garatzen diharduela azken urteetan.

Programak funtzio garrantzitsua betetzen du euskara praktikatzeko gunerik ez duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzearen aldetik.


Elkarlan hori bideratzeko eskumena ematen die 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeetara buruzkoak, udalei bere 7. artikuluko 5. puntuan:

Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin.

izandako esperientziaren balorazio positiboa egin dela kontuan hartuta, programari jarraipena ematea erabaki dela eta Jardunek diruz laguntza eskatu diola Udalari (eranskinean aurrekontua).

- 3.- Proiektu hori garatzea interesgarria delakoan, Udalak, behin behineko Alkateak 2024ko urriaren 30ean emandako Dekretu baten bitartez, diruz laguntza eman eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea erabaki duela.

Hala, beraz, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena egitea onartu dute:



KLAUSULAK

LEHENENGOA: Jardun euskara elkarteak aurkeztu duen txostenean (hitzarmen honen eranskinean laburtuta) agertzen diren ezaugarriak dituen **BERRIKETAN** programa bideratuko du 2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra bitartean.

BIGARRENA: Bergarako Udalak **10.000,00 euroko diru-laguntza** emango dio proiektu hori burutzeko Jardun euskara elkarteari.

Diru-laguntza hori 3 zatitan emango da; era honetan: hitzarmena sinatzean %30; 2025eko otsailean %30 eta 2025eko irailean beste %40a. Azkeneko zatia ordaintzeko, aurrez eskaera, ekintzaren memoria, balantze ekonomikoa eta gastuen zuritze-agiriak aurkeztu beharko dira, 2025eko irailaren 15a baino lehen.

HIRUGARRENA: Horretaz gain, Jardun euskara elkarteak honako konpromisoak hartzen ditu:

- a) Udal Euskaltegiarekin eta Euskara Zerbitzuarekin batera parte hartze aktiboa izango du Euskalduntzeari buruzko lantaldean antolatzen diren ekitaldietan parte hartuz, bertatik sortutako proiektuen jarraipena eginez, proposamenak eginez...
- b) Ekintzaren gaineko zabalkunde-oharretan Bergarako Udalaren laguntza jaso izana adieraziko du.
- c) Gizarte Segurantzarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Bergarako Udalarekiko ordainketetan egunean egotea. Bergarako Udalak ofizios egiaztatuko du, datuen bitartekaritza-plataformen eta dagozkien kontsulten bidez, honako informazio hau:
 - Bergarako Udalarekiko betebeharrak egunean izatea.
 - Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatea.
 - Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

Dena den, interesdunek egiaztapen edo kontsulta horien aurka egiteko eskubidea dute.

Kasu horretan, idazki arrazoitua aurkeztu beharko diote udalari, eta dagozkion datuak eta dokumentuak aurkeztu. Udalak ezin baditu aipatutako kontsultak egin, dagozkion dokumentazioa eskatu ahal izango dio interesdunari.

Begarako Udalaren aurrean ziurtatu beharko du baldintza guztiak betetzen dituela, hala nola, diru-laguntza jasotzen duen zerbitzuaren jarduera eta helburua betetzen direla.

Udalak egin litzakeen ikuskapenak erraztuko ditu.

Begarako Udala jakinaren gainean jarriko du baldin eta Udalak diruz laguntzen duen jarduerarako beste diru-laguntzarik lortuz gero. Beste diru-laguntzaren bat jasoko dela jakin bezain azkar jakinarazi behar zaió Udalari, eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.

g) Gutxienez sei urtez gordeko ditu jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak.

h) Ez da hitzarmena dela eta Udalaren aideko bermerik ezartzen.

LAUGARRENA: Udalak emango duen diru-laguntzaz gain helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke. Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak (Udalarenak bakarrik edo beste batzuenekin batuta) ezingo du inolaz ere altuagoa izan diruz laguntzen den jardueraren kostua baino.

BOSGARRENA: Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.


SEIGARRENA: Diru-laguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-laguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Diru-laguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Edozein arrazoiengatik, diru-laguntza (osoa edo zati bat) itzuli beharra balego, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta lege hau garatzen duen erregelamendua, 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra eta Bergarako Aurrekontuetako Udal Araua aplikatuko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bikoiztuta sinatzen dute.



Miren Etxeberria Jauregi

Jardun euskara elkarteko presidentea



Ainhoa Lete Zabaleta

Bergarako Udaleko behin behineko alkatea

ERANSKINA:

Begarako Jardun euskara elkarteak, Bergarako Udal Euskaltegiarekin lankidetzan eta Bergarako Udalak diruz lagunduta, euskaldun berriei edota euskara oso galduta dutenei Euskaltegietatik kanpo euskara praktikatzeko guneak eskaintzeko ahaleginetan dabil azken urteetan. Zehazki, **Berriketan** izeneko programaren bultzatzaile nagusia eta koordinatzailea da 2006tik.

Egitasmo honetan euskara praktikatu nahi duten horiez gain, borondatez laguntzaile izan nahi duten herritar euskaldunak ere badira; euskaraz berba egiteko talde txikiak antolatzen baitira, izena eman duten "euskaldun berri" edota "euskaldun" horiek libre dituzten orduak eta ahal den neurrian gustuak kontuan hartuta taldeak antolatzeko. Hala, printzipioz, partaide guztiek (euskara praktikatzeko premia dutenek eta euskaraz natural berba egiten dutenek) hartzen duten konpromisoa astean ordubetez elkartzeko izaten da. Bestalde, horretaz gain, aukeran hainbat ekintza osagarri ere antolatu ohi dira (bisita gidatuak, irteerak, afariak, Mintza-eguna...) talde txikitik irten eta jende gehiagorekin elkartu eta euskarazko harreman-sareak zabaltzeko aukerak eskainiz.

2023/2024 ikasturtean 53 lagun hasi ziren, 11 taldetan banatuta. 12 bidelagun eta 41 bidelari. Ikasturtean zehar, egondako alfa eta bajekin ikasturte amaieran 9 taldetan 42 lagunek amaitu zuten, 10 bidelagun eta 32 bidelari.

2023/2024 ikasturtean ohiko jarduerak egin ahal izan ditugu (Laboratoriumeko bisita gidatuak, egun guztiko irteerak...) eta ekintza berriak ere martxan jarri ditugu (gure ohiturak ezagutzen, txiste lehiaketa, erronkak...).

2023-2024 urteko balorazioa eta 2024-2025rako aurreikuspenen txostena idatzi honekin batera aurkezten diogu Bergarako Udalari.

2024-2025ean ere Berriketan egitasmoak jarraitu ahal izateko, diru-laguntza eskatzen diogu Bergarako Udalari, **10.000,00 €** hain zuzen ere.

**2024-2025 IKASTURTERAKO BEHIN BEHINEKO BERRIKETAN
EGITASMOKO AURREKONTUA**

(2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra)

GASTUAK	ZENBATEKOA (€)
PERTSONAL GASTUA (dinamizatzailea+idazkaria+komunikazioa)	8.850,00
EKINTZA OSAGARRIAK (lehiaketak, bisita gidatuak,...)	250,00
ZABALPENA (Topagunea, Berriketan, Gurasolagun...)	300,00
OPARIAK (ikasturte bukaerako oparia...)	200,00
BESTE GASTU BATZUK (aholkularitza, kilometrajea, telefonoa, bulego materiala...)	400,00
GUZTIRA	10.000,00